

SEGURTASUN PREBENTZIOAREN GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

LANPOSTUAREN ZEHATZAPEN LABURRA

- Segurtasuneko Espezialitate Teknikoa eraginkorra izateko funtzio erabakitzaileak (lanlekuak, segurtasunaren eta osasunaren seinaleztapena lanean, norbera babesteko ekipamenduak, lanerako ekipamenduak, instalazioak, makinak-erremintak, obrak...) egitea laneko prebentzioko eta osasuneko planekin, programekin eta jarduerekin lotutako helburuak betetzeko garaian eraginkortasuna eta kalitatea bermatzeko Ertzaintzaren kolektiboan eta SAZLn, arrisku horiek saihesteko eta, hala badagokio, desagerrarazteko edo gutxiagotzeko prebentzio-neurriak proposatzearren.
- Txosten teknikoak egitea hainbat instantziak (GSIN, OSALAN, Segurtasun eta Higiene Batzordeak eta abar) eskatuta.
- Jarduketa-protokoloak egitea eta prestakuntza-ikastaroak ematea Segurtasun-espezialitateari buruzko laneko osasuna sustatzeko.

EGINKIZUNEN AZALPEN ZEHATZA

- Segurtasun-espezialitatearen inguruko eginkizun garrantzitsuak –Ertzaintzaren kolektiboari eta SAZLko langileei dagokienez Ataleko Burutzak agintzen dituenak– egitea:
Jarduketa-protokoloak egitea, kalitate-estandarrak eta esleitutako helburuei dagokienez eskuragarri dauden baliabideen optimizazioa bermatuko duten kontrol-mekanismoak ezarri.
Laneko Segurtasunarekin lotutako alderdiei buruzko azterketak eta ikerketak egitea: lantokietako istripuen kausak, laneko Segurtasunaren eta Osasunaren seinaleztapena, norbera babesteko ekipamenduak, lanerako ekipamenduak, instalazioak eta makina-erreminta, osasunaren babesa eta segurtasuna arriskuen aurka (arrisku elektrikoak, kimikoak eta abar). Azterketa eta ikerketa horiek lanpostu bakoitzaren laneko arrisku-faktoreak identifikatzea, aztertzea eta ebaluatzea ahalbidetuko dute.
- Lokalen eta lantokien aldezkatu ikuskapenak egitea lantokiekin lotutako gaiei dagokienez (egiturazko segurtasuna, langune eta eremu arriskutsuak, lurzoruak, irekiguneak eta desnibelak, trenkadak, leihoak, sabaiak eta hormak, zirkulazio-bideak, arrapalak, eskailera finkoak, ebakuazio-bideak eta ebakuazio-irteerak, suteen aurkako babesa, instalazio

elektrikoa, minusbaliatuak, ordena, garbitasuna eta mantentze-lanak, ingurune-baldintzak, argiteria, lehen laguntzetarako materiala eta lokalak, instalazio termikoen eskakizun teknikoak), Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren seinaleztapena (seinaleztapen optikoa, panel gisa, argi-ohartarazpenak, hots-ohartarazpenak, kargen maneiuari buruzkoak eta abar), norbera babesteko ekipamenduak (buru-babesak, arnas-babesak, begi-babesak, aurpegi-babesak eta abar) lanerako ekipamenduak, instalazioak, makina-erreminta (erabiltzeko baldintzak, erabilerari buruzko xedapenak, eta abar), osasuna babestea eta segurtasuna izatea arrisku elektrikoaren aurrean (tentsio-elementuekin lan-prozedurak, neurketak, saiakuntzak, egiaztapenak eta abar egiteko jarraibideak) disfuntzioak antzemateko eta disfuntzio horiek konpontzeko proposamenak egiteko.

Prebentzioari buruzko Eskuliburuak, Arriskuari buruzko fitxak eta abar egitea aipatutako segurtasun-alderdiei buruz.

Ertzaintzako eta SAZLko lanpostuetan aplikatzeko aipatutako espezialitateko prebentzio-programak –atzemandako arriskuak gutxiagotuko eta/edo saihestuko dituztenak– egiten parte hartzea.

Jarduketa-jarraibideak eta -planak garatzea larrialdi-egoeretan, suteetan, ebakuazioetan eta abarretan esku-hartzeei aurre egiteko, baita emandako laguntza medikoko programak planifikatu, koordinatu eta gainbegiratzea ere.

Lan-eremuko prebentzioaren eta osasunaren alorretako diziplina anitzeko jarduketa-protokoloak eta -planak proposatzea Ataleko Burutzari, protokolo eta plan horiek ezartzeko, eta hobekuntza egokiak aztertzea eta iradokitzea protokolo eta plan horiek ezarrita dauden kalitate-estandarretara egokitzeke.

- Txosten teknikoak egitea hainbat instantziak (Laneko Ikuskatzailletza, Osalan, GSIN, eta abar) eskatuta.

Instantzia judizialek eskatuta, peritu gisa bertaratzea.

Esku artean erabiltzen den informazioaren tratamenduaren eta erabileraren inguruko konfidentzialtasuna gordetzea (datu pertsonalak, datu polizialak, txosten teknikoak, eta abar).

-Segurtasunari buruzko prestakuntza orokorreko, espezifikoko eta etengabeko prestakuntzako ikastaroak ematea Ertzaintzaren kolektiboari eta SAZLko langileei.

-Prebentzioari eta laneko osasun psikologikoari buruzko informazio-kanpainak egitea eta/edo beste ekimen batzuk abian jartzea eta haiei buruzko informazioa heda dadin sustatzea.